

Denboraren zubia



Iñaki Iturain

Bilduma: Narratiba, 152

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 136

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2024-08-29

ISBN-a: 978-84-9109-936-9

Materia: Helduentzako literatura



Salmenta prezioa

17,50 €

Orizarreko herritarrei ia oharkabeen iritsi zitzaien gerra. Arrantzale herri hartako gizon-emakumeek ahal zutena egin zuten egoera berrira egokitzeko. Gerra, nolahi ere, atrezzo hutsa da kontakizunotan, denbora eta espazio bat ematen die *Denboraren zubia* liburuko zazpi ipuinei eta istorioetako protagonistei.

Gerran gertatu ohi denez, 1936koan ere, Orizar herri txikian herritar batzuk zain zeuden soldaduak Nafarroa aldetik noiz iritsiko eta beste batzuk, berriz, horren beldurrez. Batzuk etxean geratu ziren, beste batzuek ihes. Sentimendu onenetik txarretara azalerratu zitzaizkien herritarrei, barru-barrutik.

Era askotako protagonistak ditugu liburuko zazpi narrazioetan: Etxean zeukaten irratia balkoira ateratzen zuten etxeko andre-gizonak, etxepean biltzen ziren herritarrek bazetorkien gerraren albisteak entzun ahal zitzaten. Faxisten aurrerakada gelditzeko gorriek dinamitaz lehertutako ibaiaren gaineko zubia berreraikitzen ibilitako presoaren istorioa. Bi mutil gazte, bataren eta bestearen aita kontrako bandokoak izanik, itsas labarrean adiskidetu zirenak. Gerra bukatu berrikan Frantziatik Orizarra misio sekretuan etorritako neska antropologo eta argazkilaria. Gerran gudari ibilitako gizonaren alaba kementsua. Orizarren zubia bota zuen gerrak. Gero, presoek berreraiki, errioren bi aldeak berriro lotzeko. Liburuan tragedia haren garaiko istorioak gogora ekarri nahi izan dira, oroimenaren bidez. Orduan bi aldeak bezala, lotu ditu orain zubiaren denborak bi aldiak.

Iñaki Iturain



Iñaki Iturain Azpiroz Orion jaio zen 1956an. Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Zientzietako ikasketak ditu eginak. EITB sortu aurretik, telebistarako esatariak prestatzeko, Donostian eratu zen eskolan ibili zen. Ibilbide profesional ia osoa euskarari lotutako lantegietan eman du, euskararen ezagutza, erabilera eta atxikimendua sustatzeko zenbait alorretan, irakasle eta teknikari: HABE, HAEE/IVAP, IRALE, eta EJKo Hezkuntza Sailaren NOLEGA programan.

Idazteko zaletasuna izan du gaztetatik. Kazetaritza-lanak egin ditu, batez ere. Aia eta Orioko KARKARA herri-aldizkariaren sortzaileetakoa da, eta han aritu eta trebatu da idazten. Artikuluak idatzi ditu hainbat hedabidetan.

Bere jaioterriaren zenbait arlotan egindako ikerketetan oinarritutako liburuak ere argitaratu ditu: bertako euskararen ezaugarriak, historia, hango bertsolariak, arraunlariak... 2014an, Memoria Historikoaren esparruko *Gerra bat barruan degula* liburua plazaratu zuen.

Azken 10 urteotan bertsoak eta ipuinak idatzi ditu; zenbait sari eskuratu ere bai. Gerrari buruz plazaratutako liburuan kontatu zituen giza istorioek barruan sortu zituzten korapiloak askatzeko idatzi du oraingo liburua: *Denboraren zubia*.